

BANAKETA KANALAK ETA KOMUNIKAZIOA

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak. Honen barruan, Komunikazio, banaketa eta salmenta kanalak bereiz daitezke. Erabakigarria da bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko.



Gure kasuan banaketari dagokionez, business to business egingo dugu, gu kamioiak ekoizten dutenekin denbora guztian egongo gara kontaktuan, edozein arazo edota bestelako zerbait gertatzen bada momentuan abisatuko bagaituzte kamioeien ekoizpen sailetik, beraz gu enpresa hauen hornitzaileak izango gara. Guk gure produktua, alkohola eta bestelakoak detektatzeko gailua beste enpresei helarabi behar diegu eta beraientzat erraztasuna lortu behar dugu, funtsean banaketa kanal industrial bat lortu behar dugu.

Horrez gain, guk kamioiak ekoizten dituzten enpresekin etengabeko kontaktuan egon behar dugu, lehen esan bezala edozer gertatzen dela ere guri abisatzeko. Hori dela eta, guk bilera fisikoak egin beharko ditugu enpresen zuzendari edota sailetako zuzendariekin, horrela dena ondo dijoala zihurtatzeko eta gure helburua lortzen ari garela bermatzeko. Azkenik, guretzako, beste enpresa eta beraien helburua lortu nahi dutenentzat bezala, komunikazioa oso garrantzitsua izango da etengabekoa izango delako. Denekin egon behar dugu komunikatuak, bai kamioien enpresekin eta baita gizarte osoarekin ere, denei ohartarazi behar baitiegu arrisu baten aurrean daudela kamioi eta gidari profesionalen garraioetan gure ideia hau ez badago sortua.

Hau dela eta gure komunikazio kanalak hainbat izango dira; hasteko lobby-a egingo dugula argi dago, Lobby-a, pertsona edo entitateek, bertakoak zein atzerrikoek, interes partikularren bat sustatu, defendatu edo ordezkatzeko edo, beren eginkizunak betez, agintari eta funtzionario batzuek hartu behar dituzten erabakietan eragiteko egindako ahalegin edo jarduera ordainduak dira, betiere modu legal batean.

Guk hau egitean, jendearengan eta erabakiak hartu behar dituztenengan eragitea lortu behar dugu, honela gure helburuak eta eginkizunak lortu ahal izateko. Hori gutxi izango balitz bezala, kainpak ere antolatu beharko genituzke gure ideia aurrera ateratzeko eta gizarteari zen helbururekin egiten dugun helarazteko, arriskuaz ohartarazi behar diegu eta alkohola eta bestelakoak detektatzeko gailuak zein onura ekartzen dituen.